

## Gurutze Gorria ezagutzen



Bihar,  
larunbatetik  
igandera arteko  
gauean, ordua  
aldatuko da:  
goizaldeko  
02:00etan  
03:00ak  
izango dira

Gobernuz kanpoko erakundea den Gurutze Gorriak bere lana erakutsi nahi izan die lasarteoriarrei. Horretarako, Gurutze Gorriaren astea antolatu du.

Astelehenean hasi ziren ekitaldiak eta igandera arte luzatuko dira.

Astean zehar Andatza plazan jarri duten karpan erakusketa ezberdinak jartzeaz gain jarduera ezberdinak jorratu dituzte herritarren parte hartzea sustatzeko, erakusketa aldakorrek ezarri dituzte eta hainbat tailer.

Adibidez, bertaratutakoiei ura harrietatik eta lokatzatik nola iragazi daitekeen erakutsi zieten. Honetaz gain, Manuel Lekuona kultur etxean "Uretan zehar mugituz" erakusketa ikusteko aukera izan da. Bertaratu ez direnek gaur 17:00ak 19:30ak bitartean honetaz gozatzeko azken aukera dute.

### Zein material darabilte?

Galdetu al diozu zure buruari Gurutze Gorriak erreskateetan, edota larrialdietan, zein



Gurutze Gorriaren erakusketan haurrek jolasteko aukera izan dute.

material erabiltzen duen edo nola? Honi buruz interesa eta jakin mina baduzue, ez galdu aukera, eta hurbildu gaur arratsaldean Andatza Plazan jarriko den erakusketara.

Arratsaldeko 17:00ak eta 20:00ak bitartean erreskate materiala eta ibilgailuak era-

kutsiko dituzte Andatza Plazan jarri den gunean.

Eta bihar ere, egun osoan zehar, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte, elkarteak larrialdietan erabiltzen duen materiala eta ibilgailuak ezagutzeko aukera izango da.

### Istripu simulakroa

Aste honi amaiera arrakastatsua emateko, igandean, eguerdiko 12:00tan istripu simulakro bat irudikatuko dute. Honela, zauritutako biktimak nola erreskatatu eta nola eramaten dituzten erakutsiko dute.

## XIX. Zuhaitz eguna ospatu zen Brunet mendian

Udaleko Ingurumen Departamentuak Zuhaitzen Egunaren XIX. edizioa ospatu du aste honetan zehar. Horretarako, 150 zuhaitz kimu landatu ziren Brunet mendiaren magalean, 50 urki, 50 gerezio eta 50 haritz. Asteartean, egun paregabea izan zuten Landaberri ikastolako LH4 mailako eta Sasoeta-Zumaburuko LH3 mailako haurrek zuhaixkak nola landatzen diren ikasteko. Asteazkenean, berriz, Jubilatuen Elkarteko kideek eta Helduen Eskolako ikasleek parte hartu zuten ekimenean.



### ALBISTEA /3

**Eskualdeko langabezi tasa salatzen LABeko kideak Usurbildik Hernanira joango dira gaur oinez**

### KIROLA /6

**Buruntz-Azpi txirindularitza Eskolako kideak emaitza onak lortuz hasi dute denboraldia**

## M. Berasategi Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

### TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

### KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



## Neure kabuz



### Aste Santua

Bai, berriz ere, igande honetan, sartuko gara kristauok, "santua" deitzen dugun kalendario garai berezi honetan. Zer da ospatzen duguna eta oraindik ere ba al du inongo gaurkotasanik hori ospatzeak? Ospatzen duguna zer den gehienek jakingo dute, baina ez denek, zeren bizi garen giroan, jende asko dago, gure artean ere, zer eta zergatik oso garbi ez dakitenak.

Adibide polit bat gertatu zitzaidan duela aste pare bat San Pedroko Elizan. Ostirala zen eta bertan ginen hainbat elizkide "gurutz-bidea" ospatzen. Han gertatu zen gazte jator euskaldun bat, beste lantxo bat egitera etorria zen parrokiara, eta ikusi zuen ikusi zerbaitean ari ginea, baina ezin deszifratu zertan ari ote ginen, ez bai zen ohizko meza bat, beste zerbaitea eta berarentzat ezezaguna. Zertan ari zineten, galdetzen dit... nik, gutz-bidea egiten eta, hori zer da... nik, Jesusen kalbarioa edo azken egunak gogoratzea, hain zuzen aste santutan egiten duguna eta, hura, gaztea, zeharo harrituta, beste mundu batean bezala... Nork pentsatu hau gertatu zitekeenik Euskal Herrian. Baina bai, gu ere munduan gaude eta.

Ba horixe, ospatzen duguna zerbaite historikoa da, gertatu eta pertsona bati lotua dagoena, Elizak gogoratzen duen pertsona izan ere, Jesukristo. Eta bere bitartez, gaur ere, era askotara gertatzen diren "gurutz-zeak" hartzen ditugu gogoan eta jarrai, bidean bezala, geure egiten ditugu, gure bizitzak haien sufrimenduekin lotzeko asmoz. Heriotza, tortura, kartzela, zapalkuntza... bai, ez etsipenetik, baizik itxaropena eskuratzekotan baizik. Horrela bizi den baten azkena, ez da inoiz bukaera izango, aldarrikatzen dugu, mezu bezala. Horren bizitzak betirako iraungo du, balio du, ba du etorkizunik naiz, gure mundu honek, ez onartu edo estimatu, badu bai etorkizunik, berez ona delako eta ongia denen ginetik jarri duelako eta horrek, duintasuna eta gizatasuna erakusten digulako.

Xabier Andonegi

## Zorion-agurrak



### Enara

Zorionak eta bi muxu potolo etxeko guztion partetik.



### Noelia

Zorionak "lakasitos"! 21 muxu familia eta lagunen partetik.



### Unai

Zorionak eta hiru muxu handi. Gurasoak, aiton-amonak eta Ane-ren partetik.



### Nerea eta Etxebe.

Zorionak! Aitona eta amonaren partez 10 muxu!



### Naia eta Iker

Zorionak zuen zazpigarren eta hirugarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partetik. Txokomarrubizko muxuak ere bai!



### Nataly

Zorionak 2. urtebetetzean! Txokomarrubizko muxuak. Gurasoak eta aiton-amonak.



### Anartz

Zorionak gurasoen partetik! Zortzi muxu handi eta ondo pasa!



### Alaitz

Zorionak hamargarren urtebetetzean eta muxu handi bat familiaren partetik.



### Amane

Zorionak pittitti! Ondo pasa eta txokolatezko muxuak familiaren partetik.



### Jose

Zorionak txapeldun! Milaka zorion! Kafe hori ea noiz hartzen dugun! Ama, Endika eta Julen.



### Imanol

Zorionak aitaxo! Zure kontu pote bat. Muxu potolo bat Aimaier eta etxekoak.



### Oxan

Zorionak hi! la-ia ahaztu zaiguk, baina ez... Bete hitzak beste hainbeste gutxinez!

## Guardiak

### Ostirala, 26

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Larunbata, 27

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

### Igandea, 28

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

### Astelehena, 29

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Asteartea, 30

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

### Asteazkena, 31

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

### Osteguna, 1

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

### Ostirala, 2

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

### Larunbata, 3

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

### Igandea, 4

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

### Astelehena, 5

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

### Asteartea, 6

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Asteazkena, 7

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

### Osteguna, 8

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

## Jaiotzak

Saray Lobato González, martxoaren 20an  
Martín Royo Tellería, martxoaren 19an  
Markel Goenaga Barcena, martxoaren 18an  
Nahia Goicoechea Cincunegui, martxoak 15  
Asmaa Benamar El Lyazidi, martxoak 15  
Oihane Ortega Domínguez, martxoak 12

## Heriotzak

Isabel María Gómez Herrero, martxoaren 22an 65 urte zituela  
Mercedes Bengoetxea Barrikarte, martxoaren 20an 83 urte zituela  
Isidoro Arroyo Ortega, martxoaren 20ean 79 urte zituela  
Daniel Sistiaga Arburua, martxoaren 16ean 93 urte zituela  
Julita Gabirondo Irazusta, otsailaren 25ean 70 urte zituela  
Anselmo Moreno Cividades, otsailaren 21ean 60 urte zituela

## Azoka txikia

### Eskaintza inmobiliarioak

- Salgai Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegiaren ondoan. Tel.: 605 708 490. M<sup>a</sup> Carmen.
- Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. Dena berritua, 3 balkoi eta eguzkitsua. Tel.: 686 969 112
- Logela alokatzen da, sukaldeko eskubidearekin. Lasarte-Oriako erdialdean. Tel.: 677 302 010, Jokin.

- Etxea salgai Alesancon (Ezcarayren ondoan) lorategiarekin, igerileku eta gune komunak. Telefonoa 676 910 566.

- Estudio alokatzen da Vieux-Boucaux-en Aste Santurako edo Pazko asterako. Oso merke. Tel.: 688 667982

- Pisua salgai Lasarte-Orian. 4 gela, komuna, sukaldea, egongela eta ganbara. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Tel.: 664 668 652

- Lasarte-Orian etxea salgai, 5 gela, sukaldea eta komuna ditu. Eguzkitsua da. Prezioa negoziatzen da. Tel.: 662 332 848

- Logela alokatzen da, Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona arduratsua eta ez erretzailea bilatzen da. Prezioa: 250 euro gehi gastuak. Tel.: 686 932 714.

- 80 m<sup>2</sup>-ko etxea alokatzen da Lasarte-Orian. Tel.: 628 904 130.

- Lokala alokatzen da, 35 m<sup>2</sup>koa Zabaleta auzoan. Tel.: 686 234 408.

### Salerosketak

- 2002ko Suzuki RM-125 c.c. motorra saltzen da. Ez erabiltzeagatik. Garajejan gordetakoa. Tel.: 618 238 451.

### Lan-eskaintzak

- Zerbitzaria behar da taberna baterako. Tel.: 666 461 595.

### Lan-eskariak

- Pertsona arduratsua, klinika laguntzaile, geriatra eta psikologia esperientziadunak adinduek zainduko lituzke. 680 983 527, Karlos

- Etxeko lanak edo garbitasun lanetarako neska eskaintzen da. Tel.: 650 890 354.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Lanpostuak alarma gorrian

■ Buruntzaldeko enpleguaren gainbehera salatu du LAB sindikatuak ■ Oinez joango dira Usurbildik Hernanira

Enplegua suntsitzearen aurkako martxan antolatu du LAB sindikatuak langileiak eta lan esparruak Buruntzaldean bizi duten gainbehera salatzen. Konkreteki, Lasarte-Oria, 2008ko uztailaren 720 langabetu izatetik otsailaren 1.329 izatera pasa da; urte eta erdian ia bikoiztu egin da, beraz, langabetu kopurua eta une honetan langabezia tasa ehuneko 15ekoa da. Martxa gaur goizeko 9:00etan aterako da Usurbilgo pilotaleku atzetik eta Hernanin gutxi gora-behera eguerdiko ordu batean amaituko da Zinkoenea plazan egingo den agerraldiarekin.



Indarrak bildu eta aberastasuna banatzeko deia luzatu du LABek.

"Buruntzaldea alarma gorrian" leloa du LAB sindikatuak enplegua suntsitzearen aurka antolatu duen martxa. Langile talde bat Usurbildik abiatuko da oinez gaur goizeko 9:00etan eta 10:00k baino lehen izango da Lasarte-Orian. Michelindik sartu eta Oria aldera abiatuko da, bertatik, 10:30ak inguruan, Urnieta-rantz joateko, han hamaiketako egiteko hitzordua dute eta 11:30etan. Andoaindik aterako den beste talde batekin elkartu eta Hernanin amaituko dute martxa, Zinkoeneako plazan egingo den protestaldiarekin.

LAB sindikatuak martxa honen bidez, eskualdeko ekonomikoki bizi duen egoera larria salatu nahi du. %65a ugarritu da langabezia eskualdean; 2008ko uztailaren 2.582 langabetu ziren eta 2010eko otsailaren 4.281; langabezia tasa %12,6koa da Buruntzaldean. Lasarte-Orian egoera are kaxkarragoa da. Ia ehunetik 85 ugari-

tu da, 720tik 1329ra eta langabetuak %15 dira. Andoain 576tik 1.006ra pasa da; Astigarraga 135etik 195ra; Hernani 762tik 1.144ra; Urnieta 212tik 303ra eta Usurbil 177tik 304ra.

## Prentsaurrekoa

Datu hauek eta gaurko ibilaldia ezagutarazteko prentsaurrekoa eman zuten asteazken eguerdian Hernanin, Lurdes Eraso LABeko eskualdeko arduradunarekin batera, Lasarte-Oriako Jon Martin, Usurbilgo Josu Portu eta Hernaniko Jabi Hernandezek.

Bertan salatu zuten azken bi urteotan, krisi hotsak hasi zirenetik, erakundeak krisia sortu zuten banku eta espekulazale kapitalistak salbatu nahian ibili direla, hauek sortutako krisi hori langileak ordaintzen ari diren bitartean; langabezia, gizarte babesaren eta zerbitzu publikoen galerak, mixeria,..."Eta orain gure lan eskubideak

berriz ere zokoratuko dituen lan merkatuaren erreforma inposatu nahi digute" zioten.

## Alternatibak

Sindikatuaren ustez, eredu neoliberalak langileentzat alternatibarik eskaintzen ez badu ere, badago alternatiba, hain zuzen, "lanaren eta aberastasunaren banaketan oinarritutako eta langileok eraiki beharreko alternatiba".

Krisialdiari aurre egiteko kontuan izan beharreko lau ardatz aipatu zituzten LABeko ordezkariek prentsaurrekoan, euskal sektore publiko sendo eraginkor eta indartsuaren premia; lanaren banaketan oinarritutako enplegu estrategia orokorra; Babes Sozialerako sistema duina euskal pentsio sistema publikoaren alde eginez, eta azkenik langileek erabakitzen parte hartzerik izan dezaten politika ekonomiko eta sozialak bertan erabaki daitezela. •

## ELKARTASUNA

### Haitiren aldeko tonbola Sagardotegi kalean

Ostare gazte taldeak eta Institutuko DBH4 mailako ikasle talde batek, Lasarte-Oriako hainbat denden laguntzaz, tonbola antolatu dute bihar Sagardotegi kalean.

Goizeko 10:00etatik 20:00etara, herriko gazteek hegoaldearen eta iparraldearen arteko ezberdintasunei buruz sentsibilizatzeko dute Haiti adibide hartuta.

Tonbolan parte hartzen dutenek euro baten truke, herriko denda batek emandako produkturen bat eskuratu ahalko du. Bildutako dirua Haitira bideratuko da, familiek ura, janaria, maindireak edo mantak eros ditzaten.

Honetaz gain, egun osoan zehar, haurrentzako globo eta txapa tailerrak egingo dira. •

## URTEURRENA

### Froilan Elesperen oroimenez lore eskaintza

Froilan Elespe Lasarte-Oriako alkateordea hil zutenetik 9 urte pasa dira eta larunbatean, martxoaren 20an, PSE-EE alderdiko kideek Elesperen oroimenez meza ospatu zen Brigitarren komentuan eta lore eskaintza egin zuten Lasarte-Oriako hilerrian.

Bertan, besteak beste, Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkatea, Ana Urchueguia alkate ohia, Iñaki Arriola Gipuzkoako Idazkari Nagusia, herriko zinegotziak eta hainbat alderdi kide egon ziren alarguna eta familiarren ondoan. •



## UDALA

### Iruzurren abisua

Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak jakin duenez, engainuaren bidez egindako lapurreta bat izan da udalerrian.

Diputazioko teknikariak direla esanez, bi pertsona sartu dira Lasarte-Oriako etxebizitza batean jabeen banamarekin, eta momentu hori aprobetxatu dute lapurtzeko. Hori dela eta, antzeko egoerak aurreikusteko eta saihesteko, alkatetzak honek arreta eskatzen die herritarrei.

Halaber, Lasarte-Orian Haitirekin maratoi solidario batean laguntzeko aitzakiarekin, diru kopuru bat eskatzen ari zaie komertzio eta tabernei. Udaleko Erregistroan kirol proba hau burutzeko instantzia bat aurkeztu badute ere, datu falsuekin egin da eskaera, eta beraz, ez dago horrelako maratoi solidariorik aurreikusita. •

## DOKUMENTALA

### Gazako lurraldeak bizi izan zuen setioa

Asteartean, *To shoot an elephant* dokumentala ikusi ahal izan zuten Xirimiri elkartera hurbildu ziren herritarrek.

Dokumental hau 2008ko abendutik 2009ko urtarrilera Gazak bizi izan zuen bonbardaketa eta erasoaren testigantza zuzena da. Bertan geratu ziren kooperante talde batek eskualdeko egoera eta larrialdietako taldeek egun horietan nola lan egin behar izan zuten erakusten dute, hala nola, tiroketak eta lehergailuak saihestea inolako babesik gabe.

Amairan mahai inguru egin zen eta Palestinan bizi den egoerari buruz hitz egin zuten. •



# Oinatz taldekoek mendi ibilaldia egingo dute Berastegi inguruan

Gasteiz hiribarnea ezagutu ondoren, Oinatz Taldekoak berriro mendi ingurura hurbilduko dira Euskal Herriak eskaintzen dizkigun paraje ederrak ezagutu eta hauetaz gehiago jakiteko asmoarekin.

Kultur irteerak ez ezik, ibilaldiak eta zeharkaldiak prestatzen hasi dira taldekoak.

## Goiz hasita

Lehenengoa, pazko asteko larunbatean, apirilaren 10ean, prestatu dute. Honetan, Berastegi eta Tolosa inguruko mendi eta txokoetan barrena ibiltzeko asmoa dute. Goiz jaiki behar, bisitatu beharreko ingurune

guzti horiek ondo ezagutzeko denbora egon dadin. Horregatik, goizeko 6:50etan, TSSTko autobusa hartuko dute Lasarte-Orian.

Andoain eta Billabona tartean dagoen RESA geltokian jaitsi eta Berastegiko pistari helduko diote Oinatz Taldeak prestatutako irteera honetan parte hartuko dutenek.

Sorregieta aterpea, Moa Medi Lepoa, Urdelar mendi tontorra, Belabieta trikuharria edo Izaskun santutegia dira ibilaldi honetan ezagutu eta ikusi diren txokoak.

Ibilaldiaren helmuga Tolosan izango da eta garaiz iritsiz

gero, larunbatean herrian dagoen merkatuz gozatu ahal izango dute ibiltariek.

Goiz ederra pasa ondoren, Lasarte-Oriara itzulera berriro autobusez egingo dute.

Gipuzkoa eremuko bazter hauek ezagutzeko eta hauen inguruko historian murgiltzeko aukera paregabea oraingoan ere Oinatz taldeak dakarrena.

## Izena ematea

Irteera honetan parte hartu nahi duen orok, ohi bezala Ttakuneran hurbildu edo 943 371 448 zenbakira deitzea baino ez du, apirilaren 9a baino lehen. •

# ETXEAK DU GILTZA!



# EUSKARA ANUKAZ GORRA



# EUSKARA BURUZ GORRA

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Euskarako Batzordeak

## XXII. Squash txapelketa sozialeko lehen partidak jokatu dira

Astelehenean Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak antolatzen duen XXII. Squash txapelketa sozialeko lehenengo partidak aste honetan jokatu dira.

Lau partidatan faboritoek ez dute huts egin, Agustín Erkiziak Mikel Zugasti garaitu zuen, Alberto Udabek Patxi Delgadori irabazi zion, Kinin

Calvo gailendu zen Emilio Hernandezen aurka zuen partidaren eta Iñaki Garciak Fernando Monterori irabazi zion.

Txapelketa aurrera doa eta kirolariek Aste Santuko egunetan soilik izango dute atsendena. Hau guztia, maiatzaren 13an lehenengo faseari amaiera emateko. •



Txapelketa lehenengo partidaren, Alberto Udabek Patxi Delgadori irabazi zion.

# Bazpiko txirrindulari eskola txapelketaz txapelketa ari da

Udaberria iritsi eta txirrindulariak errepidera ateratu dira. Zikloturistak eta txapelketa ugari antolatzen dira garaia hauean, horregatik Bazpi txirrindularitza eskolako kideak Gipuzkoako punta batetik bestera dabilta.

### Alebin eta infantilak

Martxoaren 6an, Hernaniko Sarian hasi ziren lehiatzen txikiak, alebin eta infantilak.

Ongi hasi gainera, Luis Sobejanok infantil mailan bigarren postua eskuratu baitzuen. Era berean, Luken Carbayadak hamargarren postuan bukatu zuen alebinen mailan.

Bestalde, Usurbilgo saria antolatu zuen Bazpi taldeak martxoaren 13an Usurbilen.

Emaiza onak eskuratu zituzten infantil mailan, Xuban Errazkinen hirugarren postuan bukatu zuen lasterketa eta Luis Sobejanok seigarrena. Alebinetan, berriz, Luken Carbayadak bostgarren postuan bukatu zuen.



Algo Bazpi Txirrindularitza eskola

Xuban Errazkin Usurbilgo Sarian eskuratutako trofeoarekin eta Luis Sobejano.

### Juniorrak

Juniorrak ere gogor hasi dira eta lasterketa buruan dabilta gehienetan.

Bergarako Osintxu auzoan burutu zen Soraluze Koop. Sari nagusian, Jon Altunak laugarren postua eskuratu zuen; Eibarren, XXXII. Memorial Udaberri lasterketan, Xabier Peñagarikanok 6. pos-

tuan bukatu zuen.

Martxoaren 19an Azpeitia-ko XXIX Loyolako Sarian, berriz, ez zuten egun ona izan eta hamargarren postetik gora ibili ziren Bazpiko juniorrak. Baina, hurrengo egunean, Antzuolan, Uzarraga XXXVI igoeran, Eñaut Pagolak akats hori zuzendu zuen 5. postua eskuratuaz. •

## Kiroletako agenda

### FUTBOLA

#### Larunbata 27

**10:30ean**, Ostadar-Elgoibar (Infantil Txikiak, txapeladunen fasea) Michelinen.

**11:30ean**, Iintxa-Ostadar (I. kadetea, igoera fasea) Bikuña, Legazpian.

**12:00etan**, Ostadar-Lagun Onak (Emkumezkoen KDT F-II, kopa) Michelinen.

**13:30ean**, Ostadar-Zarautz (Partehartze infantilak, kopa) Michelinen.

**13:45ean**, Vasconia-Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Martutene, Donostian.

**15:00etan**, Ostadar-Intxurre (I. Jubenila, kopa) Michelinen.

**15:30ean**, Beti Ona-Ostadar (Erregional Gorena) Beraun, Errenterian.

**16:45ean**, Texas Lasartearra-Idiazabal (I. Jubenila, kopa) Michelinen.

**17:00etan**, Ikasberri-Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Garmendipe, Azpeitia.

**18:15ean**, Ostadar-Euskalduna (Emkumezkoen Liga, kopa) Michelinen.

#### Igandea 28

**10:00etan**, Ostadar-Kostkas M.B. (Alebinak, txapeladunen fasea) Michelinen.

**11:15ean**, Ostadar-Oiartzun (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.

### FUTBOL 7

#### Larunbata 13

**17:00etan**, Spartak Obelix-No Easy Way Out (III. maila) Ugaldetxo 2, Oiartzunen.

### ARETO-FUTBOLA

#### Larunbata 27

**16:45ean**, Zurt Taberna-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Zubiarre kiroldegia, Azkoitian.

#### Igandea 28

**12:00etan**, Elorrioko Buskantza-Aldatz H.K. (Nazioanl B maila) Elorriko kiroldegia, Elorrian.

### HERRIKO TXAPELKETA

#### Ostirala 26

**20:30ean**, Siglo XX-ISU Leihoak

#### Larunbata 27

**09:15ean**, Mingallon-Buenetxea  
**10:00etan**, Lekuona Mena-Oria Krist.

**11:00etan**, Viña del Mar-Epel

**12:00etan**, Ainhoa-Goiz Argi

**15:00etan**, Biyona-Tragoxka

**16:00etan**, Morrison-Ilargi

#### Igandea 28

**10:00etan**, JOB H.K.-Izarra

**11:00etan**, Okela-Obelix

### SASKIBALOA

#### Larunbata 27

**16:00etan**, Jalai-Errotandi ISB (Gizonezko Seniora) Kiroldegia.

### IGERIKETA

#### Larunbata 27

**10:00etan**, Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gazteek Richard Oribe VI. Sarian parte hartuko dute, Palco Yoldi kiroldegia, Donostian.

**16:00etan**, Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gazteek Neguko partehartzeko liga probintzialeko 4. jardunaldian parte hartuko dute, Ordizian.

**16:00etan**, Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gazteek Kirol Zehaztasun Ligako 3. jardunaldian parte hartuko dute, Hernanin.

### JUDO

#### Larunbata 27

**09:30ean**, LOKEko Mario Garrido eta Esteban Martinezek Fuengirolako Nazioarteko Txapelketan parte hartuko dute, Fuengirolan.

**Egun osoa**, LOKEko judokak infantil eta junior mailako Espai-

niako Borroka Txapelketan egongo dira, Gijonen.

#### Igandea 28

**Goiz osoa**, LOKEko judokak infantil eta junior mailako Espainiako Borroka Txapelketan egongo dira, Gijonen.

### TXIRRINDULARITZA

#### Larunbata 27

**10:15ean**, Bazpi txirrindulari taldeko juniorrek XXXVII. Amaikak Bat Sarian parte hartuko dute, Deban.

**16:30ean**, Bazpi txirrindulari taldeko infantil eta alebinak Lezoko Sarian parte hartuko dute, Lezon.

#### Igandea 28

**09:00etan**, Ostadarreko zikloturista taldeak Zaldibira irteera egingo du.

### ATLETISMO

#### Igandea 28

**10:30ean**, Landaberriko atleta gazteek proba konbinatuetako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, Hernanin.

### SQUASH

**18:00etatik aurrera**, kiroldegian

#### Ostirala 26

Emilio Hernandez-Agustin Erkizia

Oswal Cañedo-Alberto Udabe

### PALA

**GOMAZKO PILOTA XVI. TXAPELKETA Michelingo pilotalekuan Larunbata 27**

**16:00etan**, X.Arteaga eta J.Arteaga-B. Odriozola eta S.Martin  
**16:45ean**, I. Huegun eta H. Urdanpilleta-B. Odriozola eta S.Martin

#### Igandea 28

**09:15ean**, J.Iparragirre eta K.Rozas - I.Lizaso eta J.Alzibar

### BOLA-JOKOA

#### Igandea 28

**Egun osoa**, Ostadarreko bola joko taldeak Lehendakari txapelketako saioa du Idiazabalen.

### EHIZA


#### Larunbata 27

**Goiz osoa**, Buruntz-Azpi elkarrekin ehiza txiki txakurrarekin txapelketa soziala antolatuta du, Buruntza mendiko magaletan.

## Egunero

### Erakusketa

ALVARO LEDESMAREN Espektoak izeneko margoen erakusketa. Erretereriako artista honek 2007an egindako lanak dira. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



### Erakusketa

MOVIÉDONOS POR EL AGUA erakusketa ikusgai Gurutze Gorriaren Astearren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, martxoaren 22tik 26ra bitartean.

## Ostirala, 26

### Bertso-saioa

LASARTE-ORIA BIZIRIK! taldeak bertso-saioa antolatu du erraustegiaren aurkako jaialdian. Kulturetxean, 22:00etan.

## Igandea, 28

### Zinea

ROMPIEDIENTES haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.



### Bertso-saioa

SAHARAREN ALDEKO bertso jaialdia. Gai jartzen Amaia Agirre eta bertsoan Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Ion Maia, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi. Sarrera 10 euro aurrez, 12 egunean bertan; salgai Jalgi kafe-antzokian. Tolosako Beotibar pilotalekuan, 18:00etan, EUSKARAZ



## Funk eta soul The Billie Jeans taldearen eskutik

THE BILLIE JEANS taldea izango da gonbidatu berezia jam sesioan. Talde donostiar honek, funk eta soul jorratzen ditu.

GAUR, OSTIRALA  
JALGIN 23:00ETAN

## Senblante Andaluz Elkarteko XVIII. urteurrena

## Ostirala, 26

### Urteurrena

Lehendabizi, 18:30etan FILMA eskainiko dute eta gero 19:30ean, HITZALDI-MAHAI INGURUA egingo dute. Senblante Andaluz Elkartean.

## Larunbata, 27

### Urteurrena

LUNCHA izango da 12:00etan eta arratsaldean 18:30ean FLAMENKO IKUSKIZUNA. Senblante Andaluz Elkartean.

## Igandea, 28

### Urteurrena

OHOREZKO ARDOA eskainiko dute 12:30ean, eta BAZKARI HERRIKOIA 14:30ean ospatuko da. Arratsaldean, 18:00etan, DUENDE FLAMENCO taldearen emanaldia egongo da. Senblante Andaluz Elkartean.

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

## Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera  
10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

## Oharrak

### Erugby-ko 6 Nazioak txapelketako Porra

Beltzak Erugby taldeak jakin arazten du, erugby-ko 6 Nazio txapelketako Porraren irabazlearen zozketa igandean, martxoaren 28an, 13:00etan Jalai tabernan egingo dela.

Frantzia, Irlanda, Ingalaterra, Gales, Eskozia eta Italia da 6 nazioetako porrako sailkapena. Hainbat parte hartzaile erantzun zuzena eman dutenez zozketa egingo da.

Sariak Jalai tabernan bi pertsonentzako afaria eta Zigako landa-etxean 2 pertsonentzako asteburu pasa dira. Zorte on guztiei!

### Ikurrinak balioetan Aberri egunean

Lasarte-Oriako Bai Euskal Herriari taldeak deialdia egin nahi du apirilak 4ean, Aberri eguna dela eta, herriko balioetaren ikurrina jartzeko. Ikurrinak salgai daude, 6 euroren

truke, Bai Euskalherriari-ren web orrialdean. www.baieuskalherriari.org. Nazioa gara, estatua behar dugu!

### Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkata jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, diruzorroa, urrezko katea, zilarrrezko zintzilarioa, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrrezko belarritakoak, betaurreko graduatuak eta betaurreko graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuska-

tzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### 1960. urteko kintoen afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kintoen afaria.


Izena emateko azken eguna maiatzaren 5ean izango da.

Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutzako 21010048200012568275 kontuan sartu behar da.

Informazio gehiagorako interesatuek 943 370980 telefonora deitu (Maria Luisa).

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info



### Astojana eta sagardoa txotxean Xirimirin

Martxoaren 27an Xirimiri Elkartean astojana eta sagardoa txotxean antolatu dute nahi duen ororentzat.

Afaria 21:00etan hasiko da eta 18 euro balio du. Animatu zaitzete!

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidali edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Aiton-amonak eta lagunak ziren bazkal orduan, haurren bila zihoazek.



Langileen eskaerak Sasoeta-Zumaburuko jangelako atean izan dira, grebak iraun duen tarte honetan.

# Negoziaketa jangeletako grebaren gatazkan

Lasarte-Orian, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko jangelan izan du eragina

TXINTXARRI

**A**iton-amonen edo izeba-osaben etxean bazkaltzea edo ogitartekoa. Horiek dira Eusko Jaurilaritzak kudeatzen dituen eskola publikoen jangelen greba hasi zenetik gurasoek aurkitu behar izan dituzten irtenbideetako batzuk.

2009. urteko apirilaren hasi zuten jangeletako langileek greba, aste honetan ere beste bi greba egun izan dira, asteazkenean eta ostegunean, eta horiekin, hamabost egun izan dira eskoletan otordurik gabekoak guztira. Beraz ia urtea bete da jangeletako geldialdiak hasi zirenetik eta urte horretan, greba egun den 15 egunetan, 492 jangelek itxi dituzte atak eta 85.000 ikasle baino gehiagok jasan dute neurriaren eragina.

## Aldarrikapenak

LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek bat egin dute greba honetan. Neurri hori hartzeko arrazoi nagusiak hezkuntza saileko eta azpikontratatuak enpresetako langileen artean dauden hainbat ezberdintasun izan dira.

Auzolagun enpresako LAB sindikatuko delegatua den Idurre Condek azaldu digunez, "Gipuzkoa, Araba eta Biakaian gatazka honetan zazpi enpresa gaude. Horieta, Auzolagun enpresa sendoenetarikoa da: Gipuzkoako jangeletako langileen %40ak edo gehiagok enpresa honentzat lan egiten du".

Idurrek azaldu digunez, egun egoera desblokeatzeko daude greban eta gutxienez zenbait eskaera kontuan har-

tzeko eskatzen dute: soldatak Jaurilaritzako langileen parekoak izatea; langile bakoitzak bere ardurapean haur gutxiago izatea; etengabeko formakuntza ikastaroak lan orduen barruan eta ordutegia luzatzea lana lanaldiaren barruan egin ahal izateko.

Idurrek adierazi digunez, "gu ez gaude honetan formatuak eta gure orduetatik kanpo gauza pila egiten ditugu, haurren sehaskak jarri, fruta zuritu, gurasoekin hitz egin, irakasleei informea eman eta abar".

Hori lortuz gero, lanean normal hasiko direla onartu du Idurrek: gero "sindikatuek hitzarmenari buruz hitz egingo dute" aipatu digu.

## Negoziaketa

"Orain arte, enpresak ez du erantzun eta azkenean mugagabeko greba egitea erabaki zen, asteen bitan lan uztea egin ez. Eseri dira eta negoziaketa egutegia jarri dute behintzat" adierazi digu LABeko ordezkariak.

Eta azken orduko berriak ere jakinarazi dizkigu, "enpresak sindikatu guztiak bildu baitzituen asteartean eta mahai gainean haien proposamena jarri zuen, lan orduak hamaseitik hogeita bira luzatu, formakuntza izatea eta 2010-2011tik aurrera soldataren parekatzea %100ean".

Idurrek azaldu digunez, horiek ziren eskaera garrantzitsuenak langileentzat, izan ere, "haur kopuruarena ez da enpresaren menpe dagoen gauza, Eusko Jaurilaritzaren ardua baizik."

"Orain asanbladak egingo dira eta langileek zer egin erabakiko dute," adierazi digu.

## Herrian ikastetxe bakarra

Lasarte-Orian lan uzteak Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeko jangelan du eragina bakarrik.

Honetan, Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko txikiak gutxieneko zerbitzua izan dute gatazka hasi zenetik eta, martxoaren hasieratik, 4 eta 5 urteko haurrek eta garraioan doazen Lehen Hezkuntzako ikasleek ere bai. Beraz, Idurrek azaldu digunez soilik "Lehen Hezkuntzako 60 bat haur dira greba egunotan etortzen ez direnak".

## Guraso elkarte

Sasoeta-Zumaburuko Burunzpe Guraso Elkarteak kide diren Jose Ignacio Mendiluce eta Ikerne Etxeberriak azaldu diguten "Lehen Hezkuntzako gurasoek hasieran lagunekin edo aiton amonekin uzten zituzten haurrak bazkaltzerako orduan".

"2009. urteko maiatzean hasi ziren, hilabete bitan egiten zituzten lan uzteak eta horrek ondorioz ez zuela ikusirik asteen bi egunetan hasi ziren. Orduan, gutxieneko zerbitzuek adin tarte handiagoa eta garraioa erabiltzen zuten haurrak kontuan izateko eskatu genuen eta geroztik hamabost egun hauetan ez dugu arazo handirik izan," azaldu digute.

"Izan ere, arazo gehiena autobuseko haurrek zuten. Batzuk Antxisu bailaran bizi dira eta ez du etxera joan etorrira egiteko denborarik ematen. Hezkuntzak autobusa kendu zuenetik, are gutxiago, kotxerik ez baduzu behintzat" salatu dute.

## Erantzukizuna

"Badakigu arazoa enpresa eta langileen artekoa dela, baina

gure ustez Jaurilaritzak ere bere esku dagoena egin behar luke. Horregatik, sinadurak bildu ditugu delegaritzara bidaltzeko," adierazi digute Guraso Elkarteak kideak.

Gurasoen ordezkarien ustez, grebaren azken egunak izango dira aste honetakoak: "Gu langileen alde gaude, gainera, gure haurren onerako izango da" adierazi digute. •

**SAIZAR**  
Betiko Sagardoa

Sagardoa • Sidra Natural  
**SAIZAR**  
Sagardoa Etxerria  
Casella 2005  
Embalatzaile de SIDRAS SAIZAR, S.L.  
Kale Zahar Auzoa, 39  
20170  
**USURBIL**  
GIPUZKOA  
Tel. 943 362 228  
Fax 943 366 412  
e-mail: sidrerria@sidrassaizar.com

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)